



## **Lehenengo atala: Eskulangintza enpresen errolda: enpresa indibiduala**

**Urtea: 2024 | Ekonomia Sustapena**

### **LEHENENGO ATALEAN INSKRIBATZEKO BALDINTZAK:**

- a.**– Helbide soziala eta fiskala Gipuzkoako Lurralde Historikoan izatea.
- b.**–Interesduna Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerriren batean erroldatuta egotea egoiliar gisa.
- c.**– Gipuzkoako Lurralde Historikoan lokal bat izatea modu iraunkorrean eskulangintzarako prestatua.
- d.**– Gipuzkoako Eskulangintzako Jardueren Zerrendan jasotako eskulangintza jarduera bat edo batzuk egitea.
- e.**– Eskulangintza jarduera ohikotasunez egitea (ez dira onartzen eskulangintza jarduera noizean behin, modu osagarrian edo aldi baterako egiten dutenak).
- f.**– Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafean alta emanda egotea, egiten duten artisau-lanbideari edo lanbideei dagokien epigrafean.
- g.**– Gizarte Segurantzari dagokion erregimenean alta emanda egotea.
- h.**– Hala badagokio, gehienez ere hamar pertsona izatea lanean modu iraunkorrean, familiakoak ez direnak, ikastunak izan ezik. Eskulangintzaren arloan eskumena duen departamentuko titularrak azken baldintza hori betetzetik salbuetsi ahal izango du, aldez aurretik eskatuta, erakundeak ezarritako gainerako baldintzak betetzen baditu.
- i.**– Eskulangintza ezagutza eta/edo gaikuntza egiaztatua izatea.
- j.**– Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean edukitzea.
- m.**– Produktu kosmetikoak fabrikatzen dituzten enpresen kasuan, Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziaren baimena lortu izana, 85/2018 Errege Dekretuak, otsailaren 23koak, produktu kosmetikoak arautzen dituenak, arautzen duenaren arabera.

### **ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROZEDURA:**

Gipuzkoako Eskulangintzaren Erregistro Orokorrean sartu nahi duten pertsonak bitarteko elektronikoen bidez izan behar dituzte harremanak.

Izapide desberdinak aurkezteko eta egiteko, interesdunek, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako identifikazio sistemak eta sinadura elektronikoa erabili ahal izango dituzte. [Egoitza elektronikoa](#) dago horien zerrenda.

Inskribatzeko eskaera inprimaki normalizatuen arabera egingo da. Inprimaki horiek Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgunean eskuratu eta bete ahal izango dira:



<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/gipuzkoako-eskulangintzaren-erregistro-orokorra>

Eskulangintza enpresen kasuan, izena emateko eskabideari dagokion dokumentazioa jaso ondoren eta erregistroan inskribatzeko eskaera ebatzi aurretik, eskulangintza entitatearen egoitza bisitatuko da, prozesuen eta haiek egindako eskulangintza produktuen egokitasuna egiaztatzeko.

#### **ENPRESA INDIBIDUALAREN KASUAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:**

1. Horretarako prestatutako formularioak, behar bezala beteta.
2. Nortasun Agiri Nazionalaren, pasaportearen edo Europar Batasuneko bizileku txartelaren kopia. Europar Batasunetik kanpoko pertsonen kasuan, bizileku eta lan baimena edo bizitzeko eta lan egiteko gaitzen dituen beste edozein agiri.
3. Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerriren batean erroldatuta egotearen ziurtagiria.
4. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan dagokion artisau epigrafean alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.
5. Gizarte Segurantzako autonomoen erregimenean alta emanda egotearen egiazttagiria.
6. Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.
7. Hala badagokio, udal jarduerarako lizentzia.
8. Hala badagokio, tailerraren titulartasunaren edo errentamenduaren egiazttagiria.
9. Lantegiaren planoak/krokisa edo euskarri grafikoa.
10. Kotizazio kontu guztien lan bizitzaren ziurtagiria edo besteren konturako langilerik ez izatearen zinpeko aitortpena.
11. Hala badagokio, prestakuntza egiaztapenaren kopia.
12. Curriculum profesionala.
13. Egindako lan nagusien argazkiak.

#### **BETE BEHAR DIREN EPEAK:**

**Eskabideak aurkezteko epea: 2024ko apirilaren 24a.**

**Eskabideen amaiera-epea: 2024ko maiatzaren 23an, 13:00etan.**

#### **ARAUDI APLIKAGARRIA:**

[4/2023 Foru Dekretua, apirilaren 4koa, Gipuzkoako Eskulangintza eta Gipuzkoako Eskulangintzaren Erregistro Orokorra arautzen dituen.](#)

[2024ko deialdia, Gipuzkoako Eskulangintzaren Erregistro Orokor berrian inskribatzeko.](#)



### **ESKAERA EGITEKO URRATSAK:**

- Informazioa eta dokumentuak →  
<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/gipuzkoako-eskulangintzaren-erregistro-orokorra>
- Artisautza Erregistroko izapideak kudeatzeko aplikazioa →  
<https://egoitza.gipuzkoa.eus/WAS/CORP/WATTramiteakWEB/inicio.do?app=DRT>

### **EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU:**

#### **EKONOMIA SUSTAPENeko zerbitzua**

Telefonoak:

- Kudeaketa Teknikoa: 943-112287
- Kudeaketa Administratiboa: 943-112218

Emaila: [sustapena.ekintzailetasuna@gipuzkoa.eus](mailto:sustapena.ekintzailetasuna@gipuzkoa.eus)